



## Colina jauregia (Lanestosa)

Lanestosa Bizkaiko hiribildu zaharrean (bertako forua 1287koa da) eraikitako paisajea kaleetan antolatutako elementuen elkartzea da. Horietan nortasun handiko nekazaritza etxeak eta maila handiagoko eraikinak daude (diseinuari eta erabilitako materialei dagokienez). Laredorako errepidean lerrokaturik dauden eraikin horietariko batzuk ehun urtekoak dira: Asturiasko, Kantabriako eta Bizkaiko mendebaldeko ohiko produktu indianoa; nekazari duinen etxebizitza bihurturik daude. Beste eraikin batzuk hiriguneko kaleetan lerrokaturik daude eta nobleen etxe zaharragoak dira, batzuetan jatorri berekoak.

Horietariko bat Colina jauregia da, Errege kaleko 13. zenbakian kokatua, Calera ibairantz luzaturiko baratzeari duen lursail nahiko handian. Eraikina prisma kubiko zapaldua da; lau hegaleko estalkia dauka eta luzaturiko nahiz luzitu gabeko harlanduan zein hormarrian landuta dago, lehenengoa zokolorako, ertzetarako nahiz leihoetarako, eta bestea paramentu orokorretarako. Altuerari dagokionez, hiru maila ditu; azkena baratzeko produktuak biltzeko ganbara da. Beste biak etxeko espazio bizigarriak dira; etxeko fatxada hiru ardatzetan antolatutik daude, kofadurekin markaturiko ardatzak, eta horiek plaka leuna dute (elementu hori etxeko solairuetan ere agertzen da).

Hala eta guztiz ere, fatxadaren erregulartasuna ez da zurruna, sarbideko arkuetariko bat ezkerretara baitago. Izan ere, plaka-kapitela duen pilarean euskarriturik eta murriztuta dauden bi arku handi horien bitartez, ezkaratz batera iristen da eta, bertatik, ate bat zeharkatuz, etxeko behe solairura; bertan ez dago luxu handirik, ez eskaileran eta ez solairuetako forjatuetan. Bere interes nagusia kanpoaldean dago; aipagarria da kalera irekitako ezkaratza: formula interesgarria eta funtzionala da, eskualde osoan (baita kalitate handiko eraikinetan eta baserri askotan ere) oso hedaturik dagoen eremu erdi-publikoa.



Eskuineko arkuaren gainean, goiko solairuan, gela nobleko balkoia dago; horrek hegaleko mentsula dauka, korrituriko mentsulatzar molduradunaren gainean, eta burdinazko barrotedun karela ere badu (laua eta landutako ateburuduna, eraikina egin zen garaikoa). Horren gainean, ganbararen mailan, armarrria dago, neurri ez oso handikoa. Gurutzedun pronuntziamentua da, bertan ageri diren lau aliantza edo abizenetarako. Honako arma hauek landuta daude: lehenengo kuartelean armaturik dagoen gizona eta lehoi erpekarria; bigarrenen hiru gurutze eta hiru armarrri txiki, hiru bandarekin eta itxoroskidun moldurarekin; hirugarrenean hiru barra, eta laugarrenean lirioren bordatua duten hiru banda.

Arma horietarik bi Escudero eta Gilón abizenenak izango dira; izan ere, obraren sustatzailearenak dira, Madrilen finkaturiko Lanestosako Juan Antonio Escudero y Gilón merkatariaienak. Eraikinen diseinua Ciceroko Fernando de Vegas hargin maisuak egin zuen, 1761ean; hargintzako lana, berriz, Araseko Pedro Gómezi agindu zitzaion (12.700 errealetan egiteko konpromisoa hartu zuen). Armen zurgintza Santiago Martínezek eta Ventura de Trapagak egin zuten, eta leihoak Andrés Balerak.

Lanestosan aspalditik ez dute Escudero Gilón merkatariaien gomutarik; baina Colina abizenaz gogoratzen dira, eta abizen hori Escudero Gilónen oinordekoengan sustraiturik dago (Manuela Escudero andrearen eta Miguel de la Colina jaunaren arteko ezkontza). Familia oraindik bizi da eta jauregiari horren abizena jarri zaio. Jauregiaren ezaugarri interesgarri bat hauxe da: XX. mendearen hasierara arte XVII. eta XIX. mendeetako pintura bilduma interesgarri baten egoitza izan zela. Gaur egun, banaturik dago, dirudienez, Madrilen eta Sopuertaren artean. Azken hori da dibulgaturik dagoen zatia.

Barroko estiloko eraikin noble moderatuaren duintasuna eta luxuzko testuinguru hori nahiz bertako antzinako biztanleen sentsibilitate artistikoa da, hain zuzen ere, Colina jauregian baloratu beharrekoa.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.



### Colina jauregia

Lanestosa. (Errege kalea, 13).

### Nola heldu:

Lanestosa udalerrira Ramales de la Victoriatik joan daiteke, N-629 errepidetik; edo Karrantzatik, BI-3622 toki errepidetik. Errege kalea elizaren albo batean hasten da.

### Bisitak egiteko ordutegia:

Jabetza pribatukoa da.

### Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Lanestosa)

- San Pedro eliza.
- Plaza Zaharreko galeria etxeak.
- Pradoko kalerako mendien zirkua.
- Peña Lobera.
- Covalanas (Labar-pinturen santutegia).